

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

1441

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 24koa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendariarena, zeinaren bidez izendatzen baitira bulego horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio- eta kontratazio-mahaietan eta bestelako kide anitzeko organoetan izango dituen ordezkariak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak 7. artikuluan arautzen du kontratazio-batzordeak sortzeko aukera; 8. artikuluan, kontratazio-mahaiak egotea, eta 25. artikuluan, berriz, Kontratazio Batzorde Nagusia, kontratazio zentralizatuko horniduren, obren edo zerbitzuen kontratazio-mahaiaren zereginak betetzeko; zehazten du, gainera, kasu horietan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko ordezkari batek egon behar duela batzordean, titularrak izendatua, eta titularrak erabakiko du kasuan-kasuan pertsona horrek kontratazio-mahai bilerara joan behar duen ala ez, dagokion kontratazioaren ezaugarriak eta nolakotasuna kontuan hartuta. Bestalde, arau horren 31. eta 32. artikuluetan arautzen da zer ordezkari izan behar duen Kontrol Ekonomikoko Bulegoak bai Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Osoko Bilkuran, bai Batzorde Iraunkorrean.

Araudian egindako aldaketak ikusita, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoko plantillari atxikitako langileen aldaketak kontuan hartuta, eguneratu egin behar dira aipatutako kide anitzeko organoei dagokienez Bulego horretako zuzendariari dagozkion izendapenak.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Kontu-hartzaitzako kontrol-funtzioa esleituta daukaten pertsona hauek izendatzea Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari, jarraian aipatzen diren kide anitzeko organoetan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordean, Fernando Martínez de Zuazo Letamendi jauna. Aholku-batzorde horren Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorra nola osatzen diren uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 31. eta 32. artikuluetan arautzen da hurrenez hurren.

- Kontratazio Batzorde Nagusian, izapidetzen den espedientearen kontratazio-organoa barne hartzen duen sailaren edo erakundearen kontratazio-mahai kontu-hartzaitzako kontrol-eginkizuna esleituta duen pertsona. Organo hori Ogasun eta Ekonomia Sailari dagokionean, ordezkaria Josu Aguirre Goitia jauna izango da.

Bigarrena.— Kontratazio-mahaietan Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari izendatzea kontu-hartzaitzako kontrol-eginkizuna esleituta daukaten pertsona hauek:

- Jaurlaritzaren Lehendakartzaren kontratazio-mahaietan, Borja Pérez Ramsden jauna. Kontratazio-mahai horren osaketa Ogasun eta Ekonomia Sailburuaren 2018ko irailaren 26ko Aginduen bidez ezartzen da.

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren kontratazio-mahaietan, Josu Aguirre Goitia jauna. Kontratazio-mahai horien osaketa Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren eta Ogasun eta Ekonomia sailburuaren 2017ko apirilaren 26ko Aginduen bidez ezartzen dira.

- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko kontratazio-mahaian, Amaya Zarrabeitia Aldasola andrea. Kontratazio-mahai horren osaera Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren eta Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2017ko apirilaren 4ko Aginduaren bidez ezartzen da.
- Enplegu eta Gizarte politiketako Sailaren kontratazio-mahaian, Askoa San Millán Insagurbe andrea. Kontratazio-mahai horretako kideak Enplegu eta Gizarte politiketako sailburuaren eta Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2017ko apirilaren 24ko Aginduaren bidez izendatzen dira.
- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren kontratazio-mahaian, Marina Laserna Argote andrea. Kontratazio-mahai hori Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko apirilaren 6ko Aginduaren bidez ezartzen da.
- Hezkuntza Saileko kontratazio-mahaian, Jesús Manuel Gómez de la Rosa jauna. Kontratazio-mahai horren osaera Hezkuntzako sailburuaren eta Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2017ko ekainaren 7ko Aginduaren bidez ezartzen da.
- Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Osasuneko sailburuaren 2017ko ekainaren 13ko Aginduaren bidez osatutako Osasun Saileko kontratazio-mahaietan, Askoa San Millán Insagurbe andrea, espedientearen izapidetzea Saileko organo zentraleri edo Arabako Lurralde Ordezkaritzari dagokionean; Galo Xabier Salinazarmendaritz González de Urbina jauna, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzari dagokionean, eta Cristina Layant andrea, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari dagokionean.
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren kontratazio-mahaian, Mikel Arana Echezarreta jauna. Kontratazio-mahai horren osaera Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2017ko maiatzaren 15eko Aginduaren bidez ezartzen da.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren kontratazio-mahaian, Mikel Arana Echezarreta jauna. Kontratazio-mahai hori Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2017ko uztailaren 28ko Aginduaren bidez sortu zen.
- Segurtasun Sailaren kontratazio-mahaian, Galo Xabier Salinazarmendaritz González de Urbina Galo jauna. Kontratazio-mahai hori Ogasun eta Finantzetako sailburuaren eta Segurtasuneko sailburuaren 2014ko abenduaren 3ko Aginduaren bidez sortu zen.
- Lan eta Justizia Sailaren kontratazio-mahaian, Borja Pérez Ramsden jauna. Kontratazio-mahai horren osaera Lan eta Justiziako sailburuaren eta Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2017ko maiatzaren 10eko Aginduaren bidez ezartzen da.
- «Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua» administrazio-erakunde autonomoaren kontratazio-mahaian, Carolina Muro Arroyo andrea. Kontratazio-mahai hori Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urtarrilaren 20ko Aginduaren bidez sortu zen.
- «Euskal Estatistika Erakundea (EEE)» administrazio-erakunde autonomoaren kontratazio-mahaian, Josu Aguirre Goitia jauna. Kontratazio-mahai hura Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 1999ko maiatzaren 14ko Aginduaren bidez sortu zen.
- «Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua» administrazio-erakunde autonomoaren kontratazio-mahaian, Mikel Arana Echezarreta jauna. Kontratazio-mahaiaren osaera Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2017ko maiatzaren 15eko Aginduaren bidez ezartzen da.

– «Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)» administrazio-erakunde autonomoaren kontratazio-mahaian, Cristina Layant Villagarcía andrea. Kontratazio-mahai hori Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2017ko uztailaren 28ko Aginduaren bidez sortu zen.

– «Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia» administrazio-erakunde autonomoaren kontratazio-mahaian, María Ángeles Borjabad Roque andrea. Kontratazio-mahai hori Ogasun eta Finantzako sailburuaren eta Segurtasuneko sailburuaren 2014ko abenduaren 3ko Aginduaren bidez sortu zen.

– «Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea» administrazio-erakunde autonomoaren kontratazio-mahaian, Galo Xabier Salinazarmaritz González de Urbina jauna. Kontratazio-mahaiaren osaera Lan eta Justiziako sailburuaren eta Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2017ko maiatzaren 10eko Aginduaren bidez ezartzen da.

– «Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea» administrazio-erakunde autonomoaren kontratazio-mahaian, Borja Pérez Ramsden jauna. Kontratazio-mahai horren osaera Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2018ko irailaren 26ko Aginduaren bidez ezartzen da.

– «Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua» administrazio-erakunde autonomoaren kontratazio-mahaian, Galo Xabier Salinazarmendaritz González de Urbina jauna. Kontratazio-mahai horren osaera Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2018ko irailaren 26ko Aginduaren bidez ezartzen da.

– «Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)» administrazio-erakunde autonomoaren kontratazio-mahaian, Josu Aguirre Goitia jauna. Kontratazio-mahai horren osaera Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2019ko irailaren 18ko Aginduaren bidez ezartzen da.

– «Lehiaren Euskal Agintaritzak» administrazio-erakunde autonomoak eratzen dituen kontratazio-mahaietan, Galo Xabier Salinazarmendaritz González de Urbina jauna.

Hirugarrena.– Kontratazio-batzordeak eratzen badira, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari sail interesduneko kontratazio-mahaian bulego horretako kide izendatutako pertsonari egokituko zaio, baldin eta bulego horretako titularrak hala erabakitzen badu, kasuan kasuko kontratazioaren ezaugarrien eta nolakotasunaren arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 38. artikulua arautuko du haren parte-hartzea.

Laugarrena.– Ordezkoak izendatzea kontu-hartzailezako kontrol-eginkizuna esleituta duten eta aurreko puntuetan aipatu diren pertsona guztiei, baita José Antonio Ausin Unzurrunzaga jaunari ere, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari izendatu diren organoen bileretara joaterik ez dutenetarako, kargu hori hutsik dagoelako, titularra kanpoan edo gaixorik dagoelako edo titularrak bilerara ez joateko bestelako arrazoi justifikaturen bat duelako.

Bosgarrena.– Baliorik gabe uztea 2005eko otsailaren 18ko Ebazpenaren bidez egindako izendapenak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 24a.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendaria,
FRANCISCO DE JAVIER LOSA ZIGANDA.